

OSASUNERAKO HEZKUNTZA

Eskolatik bertatik ohitura osasuntsuak sustatu eta hezkuntza-komunitate osoaren osasunerako eskubidea bermatzeko proposamenak



© UNICEF/UN0343196/Pazos

BIZITZA OSASUNTSU BATEN ALDE EGITEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek osasunerako eskubidea dute. UNICEFeko lanaren zati handi batek eskubide hori bermatzea du xede: elikadura-programa, txertaketa-kanpaina, ur, higie-ne eta saneamendu-proiektu edo larrialdietarako laguntzen bitartez... Eta baita hezkuntzaren bitartez ere. **Hezkuntza funtsezkoa baita haur guztien osasunerako eskubidea bermatzeko**, herrialde txiroenetan eta baita aberatsenetan ere. Gure osasuna babesteko beharrezkoa den ezagutzarik gabe, ez dugu inolako babesik inguratzen gaituzten arriskuen aurrean, gure adina, aberastasuna edo egoera direnak direla: **gaixotasunaren aurrean, guztiok berdinak gara**.

Ezagutza baino askoz gehiago da hezkuntza: Osasunaren alde heztea “giza-gorputzaren zatiak jakiteaz” edo “gaixotasunak ezagutzeaz” haraindi doa. **Osasunerako hezkuntzak pertsona bakoitzak autonomo izateko duen eskubidea sendotzen du**, ziurtasun zientifikoa oinarritutako iritzi bat izaten eta ohitura osasuntsuen alde egiten laguntzen du, beste batek esan duelako edo modan dagoelako baino, gure garapenerako onena delako baizik.

Haurrek eta nerabeek beren **gorputza ezagutu**, horren funtzionamendua jakin eta aipatua osasuntsu mantentzeko eskubidea dute. **Beren adimena ezagutzeko**, horri etekinik handiena ateratzeko eta adimen hori beren oraina eta etorkizunerako egokienak diren erabakiak hartzeko erabiltzen jakiteko eskubidea dute. Beren **emozioak**, horiek egunerokotasunean duten eragina eta gizaki gisara duten garapena bultzatu edo geldotzeko duten gaitasuna **ulertzeko eskubidea** dute. **Mota guztietako pertsonekin erlazionatzeko**, gizarte-ingurune osasuntsu batean bizitzeko, talde batean berdintasun eta errespetuzko baldintzetan integratzeko, eragin onen eta txarren artean bereizteko eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea dute. Azkenik, baina aurrekoak bezain garrantzitsua, **planeta osasuntsu batean bizitzeko eskubidea** dute, non gizaki guztiak ingurumenak gure

osasun indibidualean eta espezie gisara bizirauteko aukeretan duen garrantziaren jakitun izango baitiren.

Osasunerako beren eskubideari estuki lotuta dago **haurrak osasunerako hezteko dugun betebeharra**, beren osasuna babesteko gai izan daitezen. Beren elikadura bermatzeaz, beren txertoen egutegia betetzeaz edo ariketa egitera animatzeaz haraindi, funtsezko egiteko bat dugu: lekukoa pasa behar diegu, hazten diren heinean beren burua zaintzeko gai izan daitezen: **bizitza osasuntsu baten alde egiteko beren eskubidearen oinarriak jarri behar ditugu**.

Gida honek, osasunerako eskubidea eskolatik bertatik sustatu ahal izateko eta ikasgeletatik osasunerako, higienarako, garapenerako eta ingurumen osasuntsu baterako eskubidea bermatuko duen mundu bat bultzatzeko ikasturte honetan garatuko ditugun proposamenetako zenbait jasotzen ditu. Ikasturtean zehar proposamen gehiago aurkeztuko ditugu **www.unicef.es/eus/educa/osasuna** webgunean. Adi egon!





Osasunerako eskubidea eskolatik sustatzea. Zertan datza?

Osasuna sustatuko duen eskola batek hezkuntza-komunitate osoaren osasunerako eskubidea babes-
teko konpromisoa hartuko du, ekintza zehatzen bitartez:

1. Hezkuntza-komunitate osoa osasunaren sustapenean inplikatu du.
2. Ingurune segurua eta osasuntsua bermatzen saiatuko da.
3. Osasunerako hezkuntza teoriko-praktiko bat proposatu eta ohitura osasuntsuak bultzatuko ditu.
4. Osasun-zerbitzuetarako sarbidea erraztuko du.
5. Osasuna sustatzen duten jarduteak eta barne-araudi bat ezarriko du.
6. Komunitate osoaren osasunaren alde lan egingo du.


LABURBILDUZ: osasuna sustatuko duen eskola batek erakunde gisara duen potentzial guztia ikasleen, langileen, familien eta komunitateko kideen osasuna sustatzeko erabiliko du.

1. HIRUHILEKOA

Aurtengoa ikasturte zertxobait berezia izango da, ziurgabetasunak ziurtasunak baino ageriagoak baitirudite. Baina horrek ezin ditu hezkuntza-komunitate osoaren osasunerako hezkuntza zein eskubidea eten. Elkartasunaz beteriko ikasturte berezi baterako prest!

Ukipenik gabeko agurrak

Ingurukoei ongietorria emateko, errespetua eta estimua agertzeko era da agurra. Distantziak mantentzeko ariketak ez du esan nahi agurra galdu beharra dagoenik! COVID-19aren aro bitxi honetan agur egiteko ditugun beste aukera horiek azter itzazue ikasgelan eta zein erabiliko duzuen -eta zergatik- azal ezazue. Ikasturteari ekiteko aukera egokia izan daiteke.



Eskuak uretan!

Esku Garbiketaren Egunak (urriak 15) agerian uzten duenez, oso garrantzitsua da eskuak garbitzea gaixotasunak prebenitzeko. Nola garbitu behar ditugu eskuak, baina? Abesti bilaka daitekeen olerki

honek eskuak ondo garbitzen irakatsiko die haur txikienei. Osasuntsu egon nahi badut, eskuak ondo garbituko ditut!



1. HIRUHILEKOA

Patogenorik bilatuenak

SARS-CoV-2 (COVID-19) birusaren inguruan garatu den ikerketa horrek guztiak urtero mundu osoko milioika pertsonen osasuna eta bizitza arriskuan jartzen duten infekzio-gaixotasunak prebenitu eta tratatzeko egin beharreko lan hori ulertzen laguntzen gaitu. Jarduera honek horietako zenbait azalduko dizkigu. Halaber, gure ezagutzak eta sormena piztera bultzatuko gaitu, gaixotasunak prebenitzeko neurriak beste pertsona askorenganaino hedatu ditzagun.



1. HIRUHILEKOA



Mutea kendu!



Haurren Egunak haurren eta nerabeen eskubideen inguruko hausnarketa egiteko gonbitea egiten gaitu: Egun horretan ezin dute, ez lukete isilik egon behar! Askok dira zuzenean eragiten dizkieten eta beren egunerokotasunean kezka diren gaiak baina beren ahotsak "mute" egoeran daude, helduen iritziak lehenesten baititugu: ingurumen osasuntsurako eskubidea, klima-aldaketa eta etorkizuneko gaixotasunen inguruko kezak horietako zenbait dira.

Haurren Eguna (azaroak 20) eta Haurren aldeko Irrati eta Telebistaren Eguna (abenduak 12) proposatzen ditugu haurren ahotsa entzuteko eta osasunerako eskubideari loturiko gai baten inguruan informatzea, sentsibilizatzea, mobilizatzea edo entretenitzea xede duen komunikazio-proiekturen bat gara dezaten. Jardueraren eskutik, beren komunikazio-trebetasunak indartuko dituzte, haurren eskubideen inguruko iritzia agertu eta adierazpen askatasuna eskubide eta erantzukizun gisara hobeto ulertuko dute. Mutea kentzeko ordua da!

Parte hartzeko: www.unicef.es/eus/educa/muteakendu

1. HIRUHILEKOA



Elkartasunezko urte baten itxiera



Hiruhilekoa amaitu aurretik, abenduaren 20an, Giza Elkartasunaren Eguna ospatuko dugu; aurten esanahia oso berezia izango du data horrek. Urtarrilean COVID-19aren pandemiaren berri izan genuenetik, milioika lagunek besteekiko beren elkartasuna agertu dute, era oso ezberdinetan. Elkartasun-ekintza

txiki eta handi horiek identifikatzeko gai al gara? Zergatik dira hain garrantzitsuak? Lorturiko ondorioek Bakearen Eguna (urtarrilak 30) prestatzen lagun dezakete.

#UNICEFTantak

Ez dago osasunik urik, higienerik eta saneamendurik gabe. Mundu osoan, garapen bidean dauden herrialdeetan zein gertuko gure inguruan, higiena funtsezkoa da gaixotasunen aurrean babestu eta ingurune osasuntsu batean bizi ahal izateko. Ikasturte honetako proposamen ezberdinak Tantak ekimenaren aldeko zuen eskola-kanpainaren oinarria izan daitezke (lasterketa bat edo beste era bateko jarduera edo ekitaldi bat). Hezkuntza-komunitate osoa bere tanta jartzera anima ezazu!

www.unicef.es/eus/educa/tantak



© UNICEF/UN0271531/Schermbrucker





Hezkuntzak ezin du etenik izan

COVID-19aren pandemia gelditzeak ezin du etenik suposatu milioika ikasleren hezkuntzarako eskubidearentzat. Horrexegatik, azken hilotan zenbait proposamen planteatu ditugu. Proposamen horiek ardatz izan daitezke, guztion artean hezkuntza-arloaren krisialdi honek planteatzen duen erronketara egokitutako konponbideak erabaki ditzagun:

- Hezkuntza COVID-19aren aurrean.
- COVID-19: Osasuna ikasgeletan babestea.
- COVID-19: Hezkuntza birpentsatzea.

Informazio gehiagorako:

www.unicef.es/educa/covid-19



2. HIRUHILEKOA

Hiruhileko honetan, osasuna eskolan babesteari buruzko zenbait ideia sendotzen jarraituko dugu. Online segurtasunari loturiko zenbait alderdi nabarmenduko ditugu bereziki. Halaber, elikadura osasuntsuari loturiko gai batzuk landuko ditugu ere. Halaber, haurren eskubideen inguruko hezkuntzan erreferentzia izan diren eskolak aitortzeko urteroko deialdia abiarazteko unea izango da ere.



Erreferentziazko eskolak

Ikasturtearen bigarren hiruhilekoan zehar aitortzen 4. edizioaren oinarriak argitaratuko dira. Aipatu edizioa 2020. urtean atzeratu genuen, eskolen itxieraren ondorioz. Oraingoan, ikaskuntza-irakaskuntza modalitatea erabat presentziala ez izateko aukera aintzat hartuko da eta beharrezko aldaketak sartuko dira deialdian. Horrez gain, 2019ko irailetik eskaria aurkezteko egunera arte eskolak gauzatu dituen jarduera guztiak hartuko ditu kontuan deialdiak.

Oinarriak ondoko webgunean argitaratuko dira:
www.unicef.es/educa/centros-referentes



Bakearen Eguna

Egun horretan, oporrak baino lehen elkartasunaren inguruan egin genituen hausnarketen lekukoa hartu eta 2021erako konpromisoak bilakatuko ditugu. Betetzeko gai izango al gara? Urte amaiera arte ez da hori jakiterik egongo...



2. HIRUHILEKOA

IKTen erabilera nerabezaroan



2019-2020 ikasturtea, ezustean, online hezkuntzaren urtea izan zen. Esperientzia honetatik ikaskuntza positiboak zein negatiboak atera ditugu baina, gehienbat, ondokoa geratu da garbi: ezin dela hezkuntza-proiekturik diseinatu IKTak aintzat izan gabe (ez ikasgai gisa, baizik eta lan egiteko erreminta eta ingurune gisa). Otsailean Internet Seguruaren Eguna ospatuko dugu eta gazteenek pantailekiko agertzen duten geroz eta joera handiagoari loturiko alderdi etiko, sozial eta emozional ezberdinen inguruan hausnartuko dugu.

Gizarte Justiziaren Eguna



Otsailaren 20an ospatuko da eta gizarte justiziarik gabe eskubide unibertsalik ez dagoela gogoratuko digu. Oraingoan, COVID-19aren pandemia adierazi eta ia urte batera, larrialdi honetan zehar arriskurik handiena pairatzen zuten pertsonak babesten anonimoki lagundu duten horiek aitortuko ditugu. Horretarako, Gizateriaren Pasaportea ekimena garatuko dugu: milaka profesionalak eta boluntariok besteekiko izan dituzten elkartasunezko eta gizalegeko keinu horiek aitortuko ditugu. Zein sartuko al zenuke zure pasaportean? Jarduera zure eskolako #UNICEFTantak kanpainaren baitan sar daiteke.



Agustinas Valladolid.

Uraren Eguna



Martxoak 22an ospatuko da eta egun horretan ura, higiene eta saneamendurako eskubidea bermatuko duen mundu baten alde ikasturtean zehar gauzatu ditugun ekimenak aitortuko ditugu.

Normalean, ordurako eguraldiak hobera egin duenez tanta-lasterketak egiten dira eskola guztietan. Jar ezazu zure tanta!

www.unicef.es/eus/educa/tantak

3. HIRUHILEKOA

Hirugarren hiruhilekoan kirolari eta gure inguruko osasunaren garrantzia nabarmentzeari loturiko jarduerak gauzatuko ditugu. Hil hauetan, hausnartzeko eta ospatzeko aukera izango dugu ura, osasun, kirol eta ingurumenaren zenbait nazioarteko egunen eskutik. Horrez gain, ongizate emozionalari, eskola-giro egokiari eta buruko osasunaren babesari loturiko gaiak arreta berezia jasoko dute ere.



Aitortzetarako hautagaiak aurkeztea

Ikasturtea amaitu aurretik, eskubideen eta hiritartasun globalaren inguruko hezkuntzaren arloan erreferentzia izan diren eskolak aitortzeko deialdiaren 4. ediziorako hautagaiak aurkezteko prozesua itxiko da. Deialdian parte hartzeko interesa izanez gero, adi egon zaitezte deialdiaren eguneratzeei. Ikasturtean zehar argitaratuko ditugu, denbora nahikoa izan dezazuen dokumentazioa aurkezteko.



Tantak Erakusketa

Ikasturte honetan Tantak kanpainaren erakusketa ibiltari bat izango dugu eskolen eskura. Ura, higiene eta saneamenduari buruzko argazkiak eta datuak konbinatuko dituzten hezkuntza-panel ezberdinak izango dira (Garapen Iraunkorrerako Helburuen -GIH- 6. Helburuari lotuta). Erakusketa hartzeko interesa duten erreferentziatzeko eskolek eta gure erakundearen lagun diren eskolek dagokion autonomia-batzordeari egin beharko diote eskaria.



Irakasleen prestakuntza

Haurren eskubideen, hiritartasun globalaren eta garapen iraunkorrerako helburuen inguruko hezkuntzan sakondu nahi al duzu? Ikasturte honetan prestakuntza-proposamen ezberdinak izango ditugu. Datozen hiletan jakinaraziko dira: haurren eskubideen eta hiritartasun globalaren inguruko hezkuntza, haurren parte-hartzea eta genero-ekitatea Garapen Iraunkorrerako Helburuetan, babeserako eskubidea eskoletan... Agendan apunta itzazu!

Informazio gehiagorako: www.unicef.es/educa/educacion-derechos

AGUR IKASTURTEARI!

Ekainean agur esango diogu ikasturteari eta osasunaren babesari eta ohitura osasuntsuen sustatzeari dagokienez ikasturtean zehar izan ditugun aurrerapenen errepasoa egingo dugu.

Osasunerako eskubidearen inguruan hezteko erronka handia da. Horrenbestez, datozen ikasturteotan jarraipena izango duen jarduketaren agenda bat zabaltzea beharrezkoa izan daiteke.



Edizioa

UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/eus/educa

Diseinu grafikoa: Rex Media SL

Ilustrazioak: 4., 6. eta 8. orrialdetako ilustrazioak jatorrizkoetatik egokituta daude eskuragarri Freepik-en

Haurren eskubideei, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntza-materialak, baliabideak eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordearen lanaren zati bat dira Giza Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan.

Material hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarekin (AECID) sinatutako proiektuaren esparruan egin da: "GIHen sustapena hezkuntza-esparrutik, haur eta nerabeentzat eta haien partaidetzarekin batera". Argitalpen honen edukiak ez du zertan islatu AECIDen iritzia.

UNICEFek munduko leku latzenetan dihardu lanean haur eta nerabe babesgabeenengana iristeko eta haur guztien eskubideak defendatzeko, leku guztietan. 190 herrialdetan eta lurraldetan gaude, behar den guztia egiten dugu haurrei bizirauten, aurrera egiten eta haien ahalmena garatzen laguntzeko, umetatik nerabe diren arte.

Argitalpen hau Creative Commons - komertziala ez den-Deribatu gabeko Nazioarteko 4.0 atribuzio lizentziapean sortu da, beste lizentzia-mota bat zehazten duten edukietan izan ezik.



FINANTZAILEA:



LAGUNTZAILEA:

